

200. zenbakia

Azpeitian zer?

Udal aldizkaria

Emakumeak bidegile



Telefono interesgarriak

Zentralita	943 15 72 00
Hirigintza	943 15 71 91
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92
Kultura	943 15 70 68
Kirolak	943 15 00 95
Parekidetasuna	943 15 79 28
Emakumeen Txokoa	943 15 70 55
Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79
Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16
Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60
Eguneko Zentroa	943 15 74 96
Liburutegia	943 15 71 95
Udaltzainak	943 15 13 13
Igerilekua	943 81 41 21
Kiroldegia	943 81 30 69
Udal Euskaltegia	943 81 19 47

Ale honetan zer?

Memoria	3
Elkarrizketa	6
Parekidetasuna	8
Zerbitzuak	13

Azpeititik kanpo bizi arren, zure etxean jaso dezakezu
Azpeitian Zer? aldizkari hau posta bidez. Egin eskaria
943 15 71 85 (Alkatetza) telefonoan.

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala · Egilea: Prentsa bulegoa
Argazkiak: Azpeitiko Udala · Diseinua: Sorland
Maketazioa: Sorland
Ale kopurua: 7.000 · L.G: SS - 1148/91

Herritarren Arreta Zerbitzua



Azpeitiko Udaleko lehen solairuan aurkitzen da Herritarren Arreta Zerbitzua. Dokumentuen erregistroa, errolda agiria atera, eskaera orokorrak zein lizentzia eskaerak edo kontsultak egiten dira bertan. Neguko ordutegian, astelehenetik ostiralera, 07:30etatik 14:30era izaten da zabalik; ostegunetan salbu. Egun horretan, 07:30etik 19:00etara, etenik gabe, eskaintzen zaie zerbitzua herritarrei.

Memoriaren inguruko proiektua:

Herriko emakumeen oroimena herriko emakumeen ahotsetatik

Azpeitiko Udalak, herriko emakumeen presentzia eta horien ekarpen sozialari balorea emateko, ezinbestekoa ikusi du urtez urte emakumeak herrian egoteko, egiteko eta esateko izan duten hori jaso eta baloreari jartzea. Hori lortzeko, Azpeitiko emakumeen historiaren ibilbideari arreta jarri behar zaio; izan ere, emakumeen oroimen kolektiboa eraiki eta egungo egoera ulertu nahi bada, beharrezkoa da herriko ekimen, kolektibo eta espazioen inguruko informazioa jaso eta ulertzea.

Azpeitiko emakumeen oroimen historikoa lantzeko proiektuaren baitan, Azpeitian esanguratsuak izan diren emakumeak ezagutu eta aintzat hartzeko proiektu bat jarri nahi izan da abian. Emakume jakin batzuk identifikatzeaz gain, haien esku izan diren eta herriaren oroimenaren parte izanik, jaso eta aztertu ez diren hainbat espazio, kolektibo eta ekimen ere identifikatzeko: herrigunean bada herriko emakumeen bilgune zen garbitoki bat; emakumeei lasai egoteko aukera eskaintzen zien espazio publikoa; azoka, indar handiko espazioa, salerosketan aritzen ziren gehienak emakumeak izanik; Errebala, alpargatagile ugari biltzen omen zen bertan, jostuntza. Espazio horiek eta beste batzuk nola kudeatu izan dituzten aztertu da.

Hori guztia jasoz, orain arte kontatu ez den herriaren historia osoa kontatu nahi da, eta Udalak, gure amonei entzundako kontu horiek guztiari dagokion lekua eskaintzeko ardura hartu du, beraz.



Garai berriagoetara etorritik ere, mugimendu feministak ere bilakaera garrantzitsua izan du, eta bilakaera horren berri ere jaso nahi izan da. Finean, aurreko emakumeei eta herriko feministei omenaldi bat eskaini nahi izan zaie, diskriminazioaren aurka lan egin eta emakumeen eskubideen lorpenaren bidean bidea ireki dutelako. Merezitako aitortza eskaini nahi zaie, etorkizunean, haien oroimenak lagatako lekukotza gera dadin.

PROIEKTUAREN BILAKAERA: IBILBIDEA

Parte-hartze bidez berreskuratu nahi izan da memoria eta, horretarako, talde eragile bat sortu zen iaz informazioa biltzeko eta jasotakoa kudeatzeko. Jasotako guztiarekin ibilbide historiko eta pedagogiko bat sortu da herrian zehar. Gune horietan, emakumeak identifikatzen dira, herriko emakumeak protagonistatzat izango dituen istorio bat sortuz. Ibilbide horretan emakumeentzat garrantzitsuak izan diren eta diren gaiak lantzen dira: lana, kultura, militantzia politikoa, elkarren laguntza eta babesa, etab.

Ibilbidea Azpeitiko Emakumeen Mahaiaren eta talde baten ekimen eta lanari esker osatu ahal izan da, eta honako geldialdi hauek ditu:

EMAKUME BASERRITARRAK

Baserri munduak iraungo badu, ezinbestekoa da emakumeen jarduna eta lana: etxeko lanak, laborantza, otorduak, libxa, abereak zaindu, haurrak hezi, azokara joan. Hori dena eta gehiago egin behar izaten zuten emakume baserritarrek. Lanetako bat azokara jaistea izaten zen, zein bere produktuekin, egunero joaten ziren esne-banaketara edo salerosketara eta asto-gurdiz joaten ziren Berdura plazara eta haren atzean, Astotegian, uzten zuten gurdia. Azoka egunero egiten zen arren, asteartekoa berezia izaten zen, eta ohiko saltzaileez gain, kanpotik etorritakoak ere izaten ziren egunerokoan hain eskura ez zeuden produktuak ekartzera.

Esanguratsuak izan diren Azpeitiko emakumeak ezagutu eta aintzat hartzeko proiektua jarri da abian

ALPARGATERAK

Alpargatagintza ogibide garrantzitsua izan zen XX. mendearen hasierako eta erdialdeko emakume azpeitiarrentzat. Tailerretan egindako alpargaten zola eta oihalak ematen zizkieten alpargaterai, eta horiek josi egin behar izaten zituzten, aurretik bi piezak doitu ondoren. Zeregin hori etxean egiten zuten arren, ohikoa zen bertan aspertu eta kalera ateratzea lanarekin jarraitzea beste alpargatagile batzuen konpainian. Elkartzeko ohiko lekua izaten ziren errebala eta pilotalekua. Kalea hartzen zuten, hein batean, haien jardunaren bidez harremanak egin, sozializatu eta sareak osatzeko. Jardun hau, nola ez, etxeko bestelako lanekin uztartzen zuten, eta gizonen jornalaren "aparteko" bezala hartzen zen, balio gutxiagokoa, alegia.

KULTURGINTZA

Dinamoa. Emakume askorentzat, norbanako zein kolektibo gisa, ahalduzko bide garrantzitsua izan da kulturgintza. XX. mendearen bigarren erdialdean dantza eta antzerkia diziplinek loraldia izan zuten: dantzan, Ohargi dantza taldea sortu zen 1960 urte inguruan, eta antzerkian, berriz, Antxieta antzerki taldea, ibilbide oparokoak biak ala biak. Gainera, Herri Gaztedi taldeak ere izan zituen bere baitan dantza eta antzerki taldeak ere.



TELEFONICAKO LANGILEAK

1965ean ireki zen Gipuzkoako lehenengo telefonia zentroa Azpeitian. Erdi kaletik Telefonticako eraikineraino, ehunka emakume ibiltzen ziren bata urdinez jantzita kalean gora eta behera, txanda aldaketa edo kafe ordua zenean. Lanbide hau lehen pausoa izan zen emakumeak soldatapeko lan mundura txertatzeko, eta hamarkada askoan, independentzia eta autonomia bereganatzeko ezinbesteko tresna izan zen emakume askorentzat. Telefonisten eraginez, gainera, herriko beste enpresa batzuetan ere hasi ziren lanean emakumeak.

Hainbat arlotako emakumeak nabarmendu dira: baserritarrak, alpargatagileak, kultur askoloak, dendariak, politikariak, andereño eta irakasleak...

DENDARIAK

Askotariko dendaz josita zegoen Azpeitia, eta gehienetan emakumeena ardura ziren eta haiek kudeatzen zituzten: mertzeriak, janari-dendak, gozotegiak, arropa-dendak, upeltegiak, altzari-dendak, fruta-dendak, arma-dendak, drogeriak, abarketa-dendak, lurrindegiak... Inguruko herrientzat ere erosketa egiteko gunea zen, eta astearteetako azokara gerturatzen zen jendeak, bide batez, dendetan errekaduak egiteko baliatzen zuen. Denda haiek denek nortasuna ematen zieten kaleei eta dendaz denda ibiltze horrek eta bertako hurbileko tratuak harremanak egin eta sendotzeko aukera ematen zien saltzaile eta erosleei.

NESKAMETZA ETA ZERBITZARIAK

Azpeitiko neska gazte ugari joan zen Donostiara 60.eko hamarkadan hango etxeetan haurrak zaintzera eta zerbitzari jardutera: seme-alabak eskolara eraman, etxera ekarri, seme-alabak Portura eraman arratsalde-pasa, otorduak zerbitzatu, eta beste hainbat zeregin. Astelehenetik iganderako lan-jarduna zuten, egun osoz, igande arratsaldeetan izan ezik. Hori zen libre zuten une bakarra. Jende asko joan zen garai batean baserrietatik zerbitzari lanak egitera.

IKASTOLAKO ANDEREÑOAK ETA AUZO ESKOLAK

Ikastola egon zen lehenengo eraikina, Errebal bukaeran. Ukaezina da Azpeitiko emakume irakasleen ugaritzea ikastolen sorrerarekin batera iritsi zela. 1965ean ekin zion bideari ikastolak Azpeitian, Errebalaren amaieran zegoen Jesuiten eraikinean. Ekinez, borondatez eta lanerako gogoz gainditu zituzten orduko gabezia eta zailtasun guztiak. Irakasleak behar ziren ordea, eta apenas zegoen irakasle-ikasketak zituen inor, baina hala hola ekin zioten lanari, argi edukita egoera hartan bereizten zituzten ezaugarri eta elementuak babesteak zuen garrantzia: euskara eta pedagogia aurrerakoiak.

Ezin aipatu gabe utzi, ordea, auzo eskolak. Garaiko irisgarritasunik eza eta bideen egoera kontuan izanda, baserri-guneetako haurrek ezin zuten egunero eskolara joan, auzo-eskolak antolatzea izan zen irtenbidea, eta ia auzo guztietan izan ziren.

POLITIKAGINTZA

Plaza eta Emakumeen Txoko artean. Politikagintza ez da inoiz izan emakumeentzako eremu erraza, are gutxiago errepresio garaietan. Baina Azpeitian gogor borrokatu dira emakumeak, frankismo garaian errepresioaren aurka eta eskubide zibil eta sozialen alde militatzen, besteak beste. Borroka horri esker lortu zen Azpeitian lehen haurtzaindegia irekitzea 1975ean, etxeko lanen birpentsatzeak eraginda. 1976 aldean hasi ziren lehenengo emakume taldeak sortzen, hausnarketak egiten, problematikak identifikatzen.

Idoia Arrizabalaga

Parekidetasun Batzordeburua



Hamabost bat urte dira Azpeitiko Udalak Parekidetasun Saila duenetik. Zein izan da parekidetasun arloaren eginkizun nagusia?

Eginkizun nagusia udaleko proiektuetan politika parekideak txertatzea. Izan daiteke zuzeneko proiektuen bidez edo beste sailetan zeharkakotasuna eta parekidetasuna landuz.

Udal barrura zein kanporako politika publikoak garatzea da zuen eginkizuna. Urte hauetan guztietan, zein izan dira mugarri garrantzitsuak?

Mugarri edo helburu orokorra herrian politika parekideak sustatzea da, eta horretarako, denboran zehar mugarri txiki edo zehatzagoak landu izan dira, eta pixkanaka herrian eragingo duten proiektuak

martxan jartzen joan gara. Mugarri edo zeregin horietako batzuk udalera begirako lanketak izan dira, eta beste batzuk kanpora begirako proiektuak lantzea. Udal barrura, 2013an genero indarkeriaren eta sexu erasoen biktimei arretarako protokoloa nabarmenduko genuke. Horren lanketan hainbat sail aritu ziren lanean; hala nola, udaleko gizarte-zerbitzuak, udaltzaingoa eta parekidetasun saila, eta, gure ustez, oso garrantzitsua izan da eta, hain zuzen, gaur ere, hori indartzeko lanean ari gara, hainbat sailetan formakuntza saioak eskainiz, protokoloa egokitzeko eta eguneratzeko. Gainera, sail desberdinen arteko zeharkakotasuna lantzeko, batez ere hezkuntza, gazteria eta kirol sailekin ari gara lanean, sail horietatik antolatzen edo abiatzen diren proiektuetan ikuspegi parekidetasuna txerta dezaten.

Zeharkakotasuna lantzea da gure helburu nagusietako bai, baina baita gure erronka zailenetako bat ere.

Kanpora begira, berriz, proiektu garrantzitsuenetako bat Emakumeen Txokoaren sorrera izan zen.

Emakumeen Txokoa emakumeek gune seguru bat eduki dezaten sortu zen duela 10 urte. Bertan, emakumeak ahalduentzeko **jabetze-eskolak** ematen dira, alde batetik, eta, bestetik, emakumeentzako zuzeneko arreta eskaintzen da. Azpimarratzekoa da duela gutxi abian jarri dugun aholkularitza juridikoko zerbitzua ere. Horrez gain, baditugu bestelako proiektu garrantzitsuak ere gure gizartean sortzen diren sexuen araberako desberdintasun horien inguruko sentsibilizazioa zabaltzeko, hala nola, **hezkidetza proiektua**. Proiektu horretan herriko ikastetxeetako ikasleekin hainbat saio egiten ditugu ikasturtean zehar hezkidetza, sexu-heziketa eta tratu onak lantzeko. Sentsibilizaziora begira, berriz, Plax! sexu-aholkularitza eskaintzeko zerbitzua aipatu behar da.

Parekidetasun arloaren helburu nagusia zeharkakotasuna lantzea da. Arlo guztietan eragitea, izango litzateke helburua.

Bai, zeharkakotasuna lantzea da gure helburuetako bat, baina baita gure erronka zailenetako bat ere. Jarduteko eta lan egiteko ohitura asko oso errotuta daude, baina udaleko sail desberdinekin lantzea litzateke helburua, kulturean, kirolean, hezkuntzan bertan gurekin lan egiteaz gain, bakoitzaren ahalduentzea lortu eta haiek abiatzen dituzten proiektu guztietan ikuspegi parekide bat txertatzea. Esaterako, kirol arloan, aldagela misto edo generorik gabekoak ipintzeko asmoa dugu. Nahiz eta gurekin batera landu halako ekimenak, bakoitzaren jardunean berezkoa izatea da helburua. Sail bakoitzak ikuspegi parekidea txertatzeko edo horri buruzko iritzia guri eskatu beharrean,

modu naturalean txertatzea da azken helburua, barneratuta edukitzea ikuspegi parekide hori eta, egunen batean, parekidetasun sailaren beharrik eduki gabe txertatzea.

Herrian, lehenik Emakumeen Mahaia eratu zen; horren ondoren, parekidetasun batzordea eta teknikaria hasi ziren lanean udalean, eta duela 10 urte, Emakumeen Txokoa. Azken bi hamarkada hauetan aurrerapauso nabarmenak eman dira.

Bai, hala da. Azpeitiko parekidetasun saila ez da ulertzen Emakumeen Mahairik gabe. Emakumeen Mahaia 20 urte daramatza lanean eta herrian egon diren mugimenduetan eta azken urteetako politikan eragin izugarria izan du. Haien indarraren ondorioz, eta haiek hala eskatuta, sortu zen parekidetasun saila udalean eta horrekin batera, teknikari bat eta batzorde bat. Gaur egun ere parekidetasun sailarekin elkartzen jarraitzen du Emakumeen Mahaia eta herriko politikan eragiten jarraitzen du. Lan horren ondorioz ere sortu zen Emakumeen Txokoa, herrian eragiteko gune fisiko bat baino askoz gehiago dena herriko emakume guztiei irekita dagoena. Tresna garrantzitsua da Emakumeen Txokoa, jendea lasai sentitzeko gune bezala eta bertan proiektuak lantzeko gune bezala.

Zein dira, orain, parekidetasun sailaren aurrera begirako erronkak?

Erronkak, asko. Helburu orokorreari begira, gure saila nahiko berria izanik, hura finkatzea eta egonkortzea izango litzateke. Bestetik, gure hurrengo erronka zail edo handiena zeharkakotasunean lanean jarraitzea da, besteak beste, eragiteko modurik onena arlo ezberdinetan ikuspegi parekidea txertatzea delako. Proiektu zehatzen artean, esaterako, indarkeriaren inguruko protokoloa berritzea dabilkigu esku artean gaur egun.



Bi hamarkada parekidetasunaren bidean

Emakumeen Mahaiak 20 eta
Emakumeen Txokoak 10 urte beteko
dituzte.



Hogei urte bete dira udalean emakumeen berdintasun saila sortzeko proposamena egin eta teknikari bat eskatu zutenetik. Garai hartan Udalak ez zien halakorik onartu, baina bai Emakumeen Mahai bat sortzea. Gizarte Zerbitzuetatik bideratu zuten eta sail horretako zinegotzia izan zen hura zuzendu zuena. Hasiera hartan helburu zuten emakumeen berdintasuna lortzeko, Azpeitiko emakumeak jabearaztea, eskubideak aldarrikatzea eta ahalduntzea. Dozena bat inguru emakume hasi ziren mahai hartara biltzen, batzuk feminismotik zetozenak eta beste batzuk ikasten hasi berriak. Orduan, herriko emakumeen egoerari buruzko diagnostiko bat egin zuten gero plan bat taxutzeko. Baina diagnostiko hura ezerezean gertatu zen, eta ez zen planik osatu. Horren aurrean, zenbait hitzaldi eta ikastaro antolatu zituzten mahaitik, sexualitateari buruz, autoestimuari buruz, eta abar. Eta hitzaldi eta ikastaro haietan parte hartzen zuten emakumeek nolabaiteko saretzea lortu zuten. Halaxe jarraitu zuten 2007an Udalaren gobernuan aldaketa gertatu zen arte. Une hartan berriro ekin zioten Parekidetasun Saila eta teknikaria eskatzeari; bai eta lortu ere, eta horrekin batera, lokal handiago batera aldatzea ere. Apustu handia egin zuen Udalak orduan, zerbitzua herriari zabaltu eta hainbat egitarau antolatu zituzten, orduan, jada, bertan zentralizatuta.

Ezinbesteko gunea da Emakumeen Mahaia Azpeitiko emakumeen ahotsa jasotzeko. Horretarako, Azpeitiko emakume guztiak gonbidatuta daude bertara bildu eta parte hartzeko.

Emakumeen Mahaia hilerok elkartzen da Emakumeen Txokoan, eta herriko emakumeak gonbidatuta daude bertan parte hartzera.

**Duela hogei urte elkartu ziren emakumeen
ahalegin eta tinkotasunari esker sortu zen
Emakumeen Mahaia, eta ondoren, Parekidetasun
Saila, teknikaria eta Emakumeen Txokoa**



EMAKUMEEN TXOKOA

Premia handikotzat zuten emakumeentzat gunee seguru bat sortzea, eta hortik etorri zen Emakumeen Txokoa. Duela hamar urte eratu zenetik, eskaintza oso zabala dauka gaur egun, hasierako saretzeko helburua gaindituta, gunee seguru bat lortu da, emakumeak antolatzeke eta elkar ezagutzeke. Esperientziak trukatu eta proiektuak partekatzeaz gain, parte-hartze soziopolitikoari garrantzia eman zaio; bertatik estrategia batzuk sortu bertan gero herrian eragiteke. Eta, bide batez, ahalduntzea lortzeke, bai kolektiboa eta bai norbanakoarena. Eta hamar urte hauetan garapena oso nabarmena izan da; izan ere, hainbat zerbitzu gehitu izan dira urte hauetan guztietan, aholkularitza juridikoa, kasu. Urte

Emakumeen Txokoa espazio seguru bat da, emakumeak elkartzeke, elkar ezagutzeke, herrian eragiteke eta ahalduntzea lortzeke, kolektiboa eta norbanakoarena.

hauetan guztietan hainbat eta hainbat emakume pasatu dira bertatik, askotariko adin, jatorri eta pentsaeratako emakumeak. Hala ere, oraindik era falta zaion hedatze handiagoa lortzea izango da aurrerantzean zereginetako bat.



Hogei urteko bidea daramate Azpeitiko emakume asko eta askok ahalduztzen, egunerokoan ikuspegi feminista txertatzen eta herrirako politiketan eragiten.

Horrez gain, partaidetza sozialeko gunea ere bada Emakumeen Txokoa: emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde diharduten herriko emakume, gizon eta taldeek biltzeko erabili dezaketen espazioa da. Elkarlanerako gunea. Emakumeen proposamenak eta eskaerak jaso, eta beraien partaidetza bizitzako esparru guztietan sustatzeko gunea.

Liburutegi feminista ere badago bertan, askotariko argitalpenez osatua.

Berdintasunaren inguruan Interneten murgiltzeko baliabidea, direktorioa, Interneteko atari feminista interesgarri eta baliagarriez osatutako gida.

Berdintasunaren gaiaren inguruan ikertu nahi duten herritar guztiei irekitako lanerako-gunea.

Emakumeen Txokoa herritar guztiei, emakume zein gizoni, irekita dagoen espazioa da. Benetako berdintasuna lortzeko ibilbidean, emakumeen ahalduztzeari eta autonomiari indarra eman, esperientzia eta ekarpenak trukatu, proposamenak egin eta kolektiboki eragiteko espazioa da.

Emakumeen Txokoaren bidez, parte-hartze, sentsibilizazio eta integraziorako ekimenak antolatzen dira, parekidetasuna bultzatzeko, eta bertan, hainbat arlotako informazioa ere eskaintzen da: emakumeentzako zerbitzuei buruzkoa, indarkeria sexista kasuetarako zerbitzuei buruzkoa, atzerriko ikasketen homologazioari buruzkoa, etab.





Herritar hezkideak lortzeko hainbat zerbitzu eskaintzen ditu Udalak

Sentsibilizazioa, ahaluntzea, sexu askatasuna eta herri parekidetasuna.

JABETZE ESKOLA


Azpeitiko Jabetze Eskolen helburua, emakumeei, beren burua eta bizitzaren jabe izateko tresnak eskaintzea da. Eskola, maila pertsonalean eta kolektiboan indartu, elkarrekin ikasi, errealitateari ikuspegi feminista batetik begiratu eta parte-hartze soziopolitiko handitzen lagunduko duen topagunea da.

Gipuzkoako Jabetze Eskolen Sareko kide da 2010 urteaz geroztik. Askotariko prestakuntza-eskaintza parte hartzailea osatzeko, emakumeen proposamenetatik eta parekidetasuna bultzatzeko lan-ildoan lanketatik abiatzen dira bertatik proposamenak egiteko.

IKASTAROAK

Aurten, hainbat ikastaro antolatu dira bertatik, batzuk dagoeneko jada abian direnak: Zoru pelbikoa lantzen; Gure Etxean burujabe, Etxearen eta gorputzaren zaintza ekologikoko ikastaroa; Menopausia: Hausnartzeko unea; Autodefentsa ziberfeminista (30 urtetik beherakoentzat); Zugandik (40 urtetik gorakoentzako) eta Mendi orientazioa.

Ikastaro katea Feminismo anitzak: zaintzak, sentipenak eta sexualitatea izenburupean egingo da. Kate horren barruan hiru ikastaro antolatuko dira: Gorputza, natura eta komunitate-feminismoa; Ondo bizitzeko autozaintza eta Sentipenak eta sexualitateak.



Sentsibilizazioaren bidean, ikastaro, hitzaldi eta askotariko zerbitzuak eskaintzen ditu Udalak Emakumeen Txokoaren bidez, batez ere.

Ikastaro horietaz gain, literatura feministako taldea eta Empalabramiento emakumeen ahaldunderako gaitasunak lantzeko proiektuak ere eskaintzen dira iraunkorki, eta sentsibilizazio ekimenen barruan, hainbat hitzaldi ere antolatu dira datozen hilabeteetarako. Hala nola: martxoaren 30ean, Irati Aizpuruak Indarkeria obstetrikoko hitz egingo du. Apirilaren 6an, Iñigo Etchezarretak Genero disidentzia Zk hitzaldia emango du. Maiatzaren 11n, berriz, Nerea Astigarragak Resetea tu vida liburua aurkeztuko du.

PLAX! BIKOTE ETA SEXU AHOLKULARITZA

Sentsibilitatera begirako zerbitzuetako bat da eskaintza hau; sexualitateei eta bikoteei arreta emateko zerbitzua. Zerbitzu honen helburuetako bat sexualitatea herriratzea eta gizon eta emakumeen ongizatea lortzea da. Helduentzako eskaintza honen barruan hainbat alderdi lantzen dira: zailtasun sexualak, bikote harremanak eta jelskortasuna, sexualitatea bizitzako aldi ezberdinetan; bizitza erotikoa berreskuratzea, haurren sexu-heziketaren inguruko zalantza; hots, bikoteentzako sexu-aholkularitza edo edonork bere sexu harremanetan edo sexualitatean izan ditzaketen zalantza edo arazoan aurrean jaso dezaketen doako aholkularitza da.

Zerbitzuaren helburuak, honako hauek dira, besteak beste::

- Kontaktu intimorako modu berriak ezagutu, errutinatik atera.
- Nork bere gorputza ezagutu. Orgasmoak sentitzen ikasi.
- Jelskortasunak sortutako gatazka egoerei aurre egin.
- Aldizkako eta zehaztu gabeko bikote harremanak kudeatu.
- Menopausiak sortutako aldaketa eta gogo berriei erantzuna eman.
- Nork bere klitoria zein beste batena gidatzeko baimena atera.
- Seme-alaben jaiotzaren ostean, esperientzia erotikoa indarberritu.
- Isurketa egoeretan kontrol gehiago lortu. Ereizio gaitasuna suspertu.
- Bikote eztabaidak gutxitu. Zauriak sendatu.
- Sarketa ezberdinetan plazera sentitzen ikasi.
- Lagundutako ugalketa egoeran oreka erotikoa aurkitu.
- Armairutik ateratzeko edota askatzeko laguntza lortu.
- Erakargarritasuna handitu eta bikote harreman bat hasteko gai izan.
- Gaixotasun larri batekin edo ondoren erotismoa berreskuratu.
- Seme-alaben sexu-hezkuntzarako irizpideak jaso.
- Sentitutako sexua koherentziaz bizitzeko aliantzak eta baliabideak lortu.



AHOLKULARITZA JURIDIKOA

Udaleko Parekidetasun Sailaren bidez eskaintzen den zerbitzu honen helburu nagusia emakumeei, prozesu judizialen inguruko informazioa eta orientazioa eskaintzea da, prozesu ahalduntzaileagoak eta kontzienteagoak izateko, dauden egoeran daudela, ahalik eta erabaki egokiena har dezaten. Dibortzioak, emakumeen kontrako erasoei buruzko prozesu penalak, dibortzio prozesuetatik sortutako gatazkak, mantenu pentsioen ordainketa ezak, bisita erregimenak ez betetzeak, atzerritartasunarekin lotutako arazoak, etxeko langile zein gainerako langile emakumezkoen kaleratzeak, diskriminazioak, eskubideei buruzko informazioa, laguntza sozialak eta bestelako gaien inguruko kontsultak... gai horien inguruan edozein prozedura juridiko abiatzeko zailantzak argitzeko edo informazioa jasotzeko doako zerbitzua da. Dena ikuspegi feminista batetik, eta artatuko zaituenak ulertzen zaituelako ziurtasunarekin. Honekin, emakume guztiek informazio eta

orientazio juridiko espezializatua izateko eskubidea bermatu nahi du Udalak, kasuak banan-banan aztertutako eta erabiltzaileei arreta pertsonala eskainiz.

Izan ere, prozesuen jabe egiteko ezinbestekoa delako informazio eta orientazio juridiko espezializatua, horrek emango baitie erabiltzaileei gatazkei aurre egiteko segurtasuna eta lasaitasuna.

Emakumeak entzunak izango direla era bermatu nahi da, dituzten kezkak kontsultatu eta era berean lasaitasuna lortzea, epaituak izan gabe.

Aholkularitza juridikoa Azpeitiko Emakumeen Txokoa eskainiko da ostegunetan, bi astean behin, 16:00etatik 19:00etara, eta ezinbestekoa da hitzordua eskatzea, Emakumeen Txokora deituta: 688 751 000 /943 157055. Zerbitzua konfidentziala, profesionala eta doakoa da.

Hezkidetza proiektua oso ekimen garrantzitsua da, eta horri esker, gaiak lantzeko eta aurre egiteko modu berriak barneratu dituzte inplikaturiko eragileek.

HEZKIDETZA PROIEKTUA

Badira jada urte batzuk Udalaren Berdintasunerako Planean eta Emakumeen Mahaiak aurreikusitako beharrea oinarrituta programa hau abian jarri zela. Bi aldeetatik lehentasunezko zatia jo zutelako hezkidetza politikak aplikatu beharra lan eremu estrategikoak identifikatzeko. Hezkidetza programa herriko ikastetxeekin, LH6, DBH eta Batxilergoko ikasleekin, gurasoekin eta herriko hezkidetza foroaren bidez lantzen da hiru ardatzetan oinarrituta: sexuen hezkuntza; parekidetasuna eta tratua onak. Herriak, hortaz, hezkidetza programa integral bat du herritarren beharrei erantzuteko, eta, funtsean, pertsona eta harreman askeak oinarri dituen Azpeitia osatzeko.

IKASLEENGANDIK HARAGO, HERRIAN TXERTATUA

Hezkidetza programa batik bat ikastetxeekin eta ikastetxeetan lantzen den arren, herri proiektua da oinarrian, eta hezkuntza komunitatean eta herrian txertatzea lortu da. Ikastetxeetan lantzen diren saioetan formazioa, sentsibilizazioa, aholkularitza eta saretea azpimarratzen dira, eta ikasleekin egindako saioetatik harago, ikastetxea bera tratatu onen munduan murgiltzea lortu nahi da. Horrez gain, herritarrek ere inplikatzeko dira programa honetan eta gazteen bizitzaren parte diren beste eragile batzuen inplikazioa bilatu da – gazte-lekuak, ludotekak eta udal teknikariak –, horien elkarlana eta saretea bultzatuz.

HEZKIDETZA FOROA

Urrats garrantzitsua izan da hezkidetza foroa sortzea egitasmoa hezkuntza erkidegoan ez ezin herrian txertatu ahal izateko. Foroaren kide dira irakasleak, ikasleak, gurasoak eta beste hainbat eragile, eta elkarlanean dihardute.

Ikastetxeetatik jaso izan den balorazioa ona izan da, orain gaia hobeto lantzeko baliabideak dituztela uste dute, eta, oro har, komunitate guztiak sentsibilizazio handiagoa duela orain, bai hezkidetzaren bai sexu eta afektibitatearen inguruan.





ekindar

Azpeitia argia eta garbia



**GURE ETXEETAN,
GEUK SORTUTAKO
ENERGIA**